

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, egin du Euskaltzaindiak 1983.eko abenduaren 30 ean bere hileroko batzarrea. Arratsaldeko laurak eta hogeitan, ohi den otoitzarekin eman dio euskaltzainburuak hasiera. Egon dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, J. M. Aranalde, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J. G. Etxebarria, J. Etxaide, X. Kintana, M. Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, B. Oihartzabal, P. Zabaleta, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizeko batzarrean L. Mitxelena ere egon da eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi du.

Azaroko batzarre bien agiriak onartu dira.

Hil berri den A. Irigaray euskaltzainaren aipamena egin du J. M. Satrustegik. Euskararen alde, bereziki Nafarroan, egindako lanak gogoratu ditu lehenik. Idazle eta ikerle mailan bi helburu nagusi azpimarratu ditu: mendez-mende euskarak Nafarroan egindako atzerkadaren agerpena, eta aintzinako izkribu nahiz idazle zaharren izenak berreskuratzea.

Zenduaren hutsunea betetzeko, araudiak dioenez, bi hilabeteko epea irekia gelditzen dela, adierazi du euskaltzainburuak. Denbora horretan, ohi den eran egin ditzakete euskaltzainek euskaltzain-gaien proposamenak.

Goizeko batzarraren berri

Eguneko gaietan sartu aurretik esku-arteke gutun batzu aipatu dira. Sortu berria den *Literaturgintzarako laguntzak* banatuko dituen batzorderako ordezkari bat izendatzea eskatzen diote antolatzaileek Euskaltzaindiari. J. San Martinen izena eman da.

Era berean, J. M. Velez Mendizabal jaunak HABE-rako beste ordezkari bat izendatzea eskatzen duen gutuna irakurri da, eta J. San Martin aukeratu dute batzar-tuek.

Maileguzko hitzak: I) Hitz hasierak

Eguneko gai nagusia, Uztaritzeko jardunaldietan helduxeak gelditutako maileguzkoen hitz hasierak erabakitzeko proposamena aztertzea da. Bere egunean P. Goenagak aurkeztutako txostena oinarritzat harturik eta R. Badiola ere batzordeñoan zela hartutako erabaki-gaia irakurri du J. Haritschelhar euskaltzin-buruordeak. Emandako epe barnean ez da oharririk jaso. Arau hauek, sartu behar diren hitz berrietan jarraituko direla, aditzera eman da lehenik. Adibideetan aipaturiko hitzak mailegatzat emanak direlako itxura hartzen dutenez, ahalik adibide gutxien sartzea komeni dela, esan da. Aurkeztu den proposamenari zenbait ohar egin zaio eta orrazketa guzien ondoren, honela gelditu da:

Erdaraz hasieran *r* edo *s* + *kontsonante duten hitzei*, euskarak bereganatu dituenean *protesi-bokala jarri die orain arte*. Adibidez: *a-*, arratoi, arropa, arrosa; *e-*, erramu, errege, erregela, erremedio, Erroma, Errusia, estatu, ezpata;*e/i-*, ezpiritu/izpiritu. Eta joera horrek gaurdaino duen indarra ikusiz, gisa bereko hitzak mailegatzat, aurrean *e* bat cranstea gomendatzen da: erromantiko, erradiografia, erlatibitate, espeleologia, eski...

Hitz horiek, ordea, ez dute zertan *a/e/i*-rik hartu, aurretik elkarketa dela eta jadanik beste bokalen bat daramatenean: Erreforma/Kontrarreforma. Salbuespenzat azken dira azken orduko mailegu irentsi gabeak. Siglak: RENFE. Izen propioak. Rembrandt, Röntgen, Roquefort, Sri Lanka, Stalin. Eta berrikitan hartuak bereziki: radar, rally, ranking, record, robot, rock-and-roll, royalty, standard, stop...

Aintzina euskarak /p/, /t/, /k/, fonemak hasieran zituzten erdal hitzak —pace, tempora, castelli—, beraiek mailegatzat /b/, /d/, /g/, bilakarazten zituen eskuarki —bake, denbora, gaztelu—; baina joera hori aspaldian galdua delarik, Euskaltzaindiaren aburuz, gisa bereko hitz berriak erdaratik jasotzean ez litzateke aldaketarik egin behar. Esaterako: politika, penizilina, telegrama, topografia, kontrola, kimika...

Era berean, hitz oinarria aintzina mailegatua delako aldatua izan arren, haiengandiko erdal eratorri berriak ez dute euskaraz aldaketa beharrik. Adibide gisa: gorputz baina korporazio, denbora baina teperatura, lore baina flora (faunaren osagarria).

Proposamenaren zenbait puntu zehaztu eta azken orraztapenaren ondoren bozketatuta egin da. Hamabost euskaltzainek hartu dute parte, eta P. Lardazabal jaunak J. Haritschelharri eman dio idatziz ahala. Denera hamasei. Hauetatik, 15 BAI eta ZURI bat atera dira.

Hitz-hasierak nola mailegatu behar diren erabakirik utzi du, beraz, Euskaltzaindiak. Datorren hileko batzarrera *Hitz-bukaerak* mailegatzeko erabaki-proposamena ekartzeko eskatu die arduradunei euskaltzain buruak.

Argitalpenen Erregela Bereziak. Eguneko bigarren gaia Argitalpenen erregela bereziki buruz jasotako zuzenketa eta oharrak aztertzea dela, zioen deiak. Aldaketa guztiak kontuan hartuz egindako proposamen berria banatu da, azken erabakia beste batzarre baterako utzirik.

Expolangues. Urtarrilaren 25-etik 29-ra Parisen egitekoa den Liburu Erakusketaren antolakizun lanak zertan diren agertzerat eman du J. Haritschelhar jaunak. Berrehun gomita-gutun egiteko agindua du, eta eramango diren liburuen zerrenda behar da orain. Hemengo antolakizun batzordea arduratuko da garraioaz.